



**ITSASONDOKO
UDALA**

ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Zer da? Beren kasa baliatzeko edo familiaren nukleoari osorik eusteko arazoak dituztenenei zuzendutako zerbitzua da. Mendekotasuna duten pertsonen zainketan eta etxeko lanetan lagunduz, erabiltzaileak beren etxean, senditarlean, bizitzen jarraitu ahal izatea du helburu.

** Eskatu aurretik Gipuzkoako Aldundiak emandako mendekotasunaren balorazioa edo ezgaitasunaren kalifikazioa eskuratzea derrigorrezkoa da. Horretarako Udalaren Gizarte Zerbitzuekin kontaktuan jarri behar da*

Zerbitzuaren jarduerak

- Elikadurarekin loturikoak: Otorduak antolatu eta prestatu, janaria erostea...
- Jantziekin loturikoak: Arropa garbitu, lehortu, gainbegiratu, atolatu eta gorde, lisatu eta toilestu, erosten lagundu....
- Etxeko instalazioen mantentzea: Etxea txukundu, garbitu, ohea egin....
- Laguntza pertsonala: Ohetik aaltxatu, oheratu, garbiketa, mugikortasun beharrak sahiestea, jarduera instrumentaletan laguntzea, jaten ematen lagundu, janzten lagundu, botikak era egoki batean hartze lagundu....

Nork eska dezake? Autonomia galtzearen ondorioz, beren etxean bizitzen jarraitu ahal izateko, oinarrizko etxeko lanak egiten laguntza behar dutenak, bai aldi baterako laguntza bai laguntza iraunkorra. Zehazkiago: ✓ Beren kaguz moldatzeko zailtasunak dituzten ezgaitasunak nahiz elbarritasunak dituzten pertsonak. ✓ Familiaren aldetik beharrezko zaintza jaso ezin ditzaketen adingabeak. ✓ Zama gehiegi duten familia talde edo pertsonak, gizarte egoera ezegonkorra edo/eta gaixotasun fisiko edo psikikoen ondorioz arazoak dituztenak

Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskaera Orokorra (Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzuaren eskaera eredu)
 1. Zerbitzuaren hartzailearen eta bizikidetzaren unitateko gainerako kideen NAN. 2.- Familia-liburua, bidezkoa bada.
 2. Mendekotasunaren balioespenaren ebazpena.
 3. Ezgaitasunaren aintzatespena, bidezkoa bada.
 4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpena, eta ondareari buruzko inprimakia edo aitortpen hori aurkezteko beharrik ez duela egiaztatzen duen agiria.
 5. Diru-sarreraren egiaztatzea, bai eta ondarearena ere.

Nola eskatu daiteke?



ITSASONDOKO UDALA

- Aurrez-aurre: Itsasondoko Udalaren Gizarte Zerbitzuetako sailean aurrez zita eskatuz. Astelehen eta ostiraletan: 09:00etatik 13:00etara | Asteazkenetan (Gizarte Zerbitzuetako administraria): 09:00etatik 12:00etara.
- Telefonoa: 943.881.170
- Email-a: gizarte@itsasondo.eus

Zerbitzuaren kostua: Udalak eta erabiltzaileek partekatzen dute. Azken hauek ordaindu beharreko diru kopurua beren egoera ekonomikoaren arabera izango da ondorengo erizpideen arabera:

- a) Hartzailearen baliabide ekonomikoak, edo, hala badagokio, bizikidetzan unitateko gainerako kideen diru-sarrerak. Haien ekarpenaren muga zerbitzuaren kostu errealak izango da.
- b) Zerbitzuaren kostua.
- c) Erabiltzaileak zerbitzua zenbat erabiliko duen.

Araudia

- 155/2001 Dekretua, uztailaren 30ekoa, gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazteko dena (2001.08.27ko EHA Aldizkaria)

-2018ko Azaroaren 28an Gipuzkoako Boletín ofizialean argitaratutako Itsasondoko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal arautegia.